PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Iruzkungo Bordak

Iruzkungo Bordak

Xulapainen daude, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Xulapain non dagoen ikus dezakezu.

Xulapaingo bordetan frankistek
pertsona asko hil eta lurperatu zituzten.
Bordak mendian artzainek
animaliak gordetzen dituzten txabolak dira,
adibidez ardiak eta ahuntzak.

Artzain batek bertan gertatu zena ikusi zuen
eta berari esker 1979. eta 2019. urteetan
borda horietan 2 desobiratze egin ziren
36 pertsonen gorpuzkiak berreskuratzeko.

1979. urteko desobiratzean
berreskuratu zituzten gorpuzkiak
Sartagudako hilerrian lurperatu zituzten berriz.

Xulapaingo Udalak eta Ahaztuak 1936-1977 elkarteak
bertan hil zituzten pertsonak gogorarazteko
plaka bat jarri zuten
borden ondoan dagoen
harrobi abandonatuan.
Harrobia harriak ateratzen diren lekua da.

2019ko irailean
Carlos Martínezek, Fernando Mikelarenak eta
Orreaga Oskotzen ikerketari esker
Memoriaren Nafarroako Institutuak
beste desobiratze bat egin zuen.
Desobiratzen honetan
beste 4 hobi aurkitu zituzten.
20 pertsonen gorpuzkiak aurkitu zituzten
baina oraindik ez dakite nor diren:

- Lehenengo hobian
  9 pertsonen gorpuzkiak desobiratu zituzten.
- Bigarren hobian
  9 pertsonen hobiak desobiratu zituzten.
- Hirugarren hobian
  pertsona 1en gorpuzkiak desobiratu zituzten.
- Hirugarren hobian
  pertsona 1en gorpuzkiak desobiratu zituzten.

Esteka honetan Iruzkungo hobien desobiratzeen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/iruzkungo-bordak

Hemen desobiratzeen argazkia ikus dezakezu:



Hemen argazki bat ikus dezakezu
lurperatuta dauden panteoiarena
Sartagudako hildakoak.

